



# BEHAR-ZANAK **BADU** EGOITZA BERRIA

Villabonako elkarteak atzo inauguratu zuen ofizialki lokala; egunean zehar pilota partidak eta kalejira ere egin zituzten 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2009-09-20**

VII.URTEA 1.781.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Goizean goiz joan zen jendea azokara eta materialik onena berehala amaitu zen. ESTI EZEIZA

## «ESPEROTAKOA BAINO GEHIAGO SALDU» DUTE 2. ESKUKO AZOKAN

**VILLABONA** Mugikortasun Astean bizikletak eta osagarriak saldu zituzten atzo Berdura plazan; gaur, martxa egingo dute eskualdetik 7

## Zortzimilakoak igotzearen abentura pausoz pauso

**VILLABONA** Udan Pakistanen izan dira Zendoia, Lasa eta Porrás Gasherbrum I eta II igotzeko 4-5

## 24 orduz aritu ondoren, finala gaur 'Billabonara'-n

**VILLABONA** 12:00etan jokatuko dute finala Olaederran; 16 talde aritu dira lehian 7



Goizetik hasi ziren futbolariak; giro bikaina izan zen Olaederran. ESTI EZEIZA



bidali  
opor  
hauetako  
argazkiak!

**NORA  
BIDALI?**

[tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) helbide elektronikora edo  
**HITZA**ren Tolosako edo Leitzako **egoitzetara**



**1. Saria**

**2. Saria**

**3. Saria**

Geta  
Saia  
bi lag  
aste

Karli  
arga

Go  
bi



riarekin.

**HITZA**



**HITZA** udako argazki lehiaketa

## Erdi Aroan



### » Uzturretik

Iraitz Lizarraga

**A**ste honetan airean dabilen berri baten baitan idatzi nahiko nuke, aldez aurretik barka-

mena eskatuz inor iraintzen badut (badaezpada ere...): irakaslean "autoritate publiko" izendatu behar omen dituzte! Historiak aurrera egin beharrean atzerantz egiten duela dirudi, gizarte estamentalerantz pausuak emanez. Ezbedintasun ekonomikoak gauza jakina dira geure gizartearen, baina honi klase ezberdintasunak gehitzen badizkiegu eta gainera, gero eta gehiago, herriko alkatea aurretik pasatzean belaunikatzen bukatuko dugu!

Ezin daitezke alde batera utzi

irakaskuntzan ematen diren arazoak: ez naiz hasiko sistema berak dituen oinarritzko akatsez idazten, artikulubat, bi, hiru eta HItza osoa betetzeko adina izango bait nuke. Irakasleek jasaten duten presioa ari naiz: errealitate bat da eta gordina gainera: Batetik biolentzia mediátikoz inguraturiko ikasleen presioa jasaten dute eta bestetik beraien semeak aingerutxoak direlakoan irakaslearen bronkarik txikiena ere salatzeke prest agertzen diren gurasoena.

Baina zerbaít konponduko al

du irakasleei estatus berezi hori emateak? Zertara dator, pertsona bat duen ofizioagatik legearen aurrean beste pertsona bat baino gehiago izatea? Errespetu gehiago merezi al du ikasketa jakin batzuk dituelako? Okina iraindu daiteke baina poilizia ez, mekanikoari ostiko bat ematea zilegi da baina medikuari emanez gero, tribunalera zoaz. Eskolako kontsejeari txistua botatzea... tira! Baina irakasleari... Gartzelara zuzenean!

Gizakiaren heziketa hain garrantzitsua den eskolatzeko proze-

suan gizarte eta estatus desberdintasunak markatzeak, ez dut uste eragin positiborik izango duenik, errespetua eta berdintasunerako bidean. Baina... atzerantz egin eta gizarte eredu estamental eta errepresiboa nahi badugu... ondo goaz! Errespetuak, ez du zerikusirik irakaslea klaserantz sartzean zutik jartzearekin, zerbaít gehiago da: berdin arteko paktua, alegia, eta badirudi berdintasunetik nahiko urrutik gaudela XXI mendeko gizarte moderno honetan.

### K Komikia

### Gorka Salaberria



### E Eskertza

#### Orain egun gutxi hil zen **IÑAKI IBARGUREN GARAIKOETXEA**

"PITXI"  
-Goian bego-

Haren emaztea, alaba eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizuete samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.

HERNANIN  
2009ko irailaren 20a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Alzheimerra. Guztion ardurara

## » Iritzia

**Josune Mendez de Cruz**  
Psikologoa. AFAGIKo Kudeaketa  
Sozialeko Zuzendaria.

**A**lzhemirra zure munduaren zati da... gogora ezazu, dio AFAGI Elkarteak 2009. urteko Alzhemirren munduko egunerako prestatu duen kanpainaren leloak. Bihar, irailaren 21a, ospatuko dugu egun hori. Horrela da bai, Alzhemirrak guztion ardurara behar duela izan gogoratu nahi dugu. Kanean dago, edonork izan dezake (emakumezkoak, gizonezkoak, edadetuak eta gazteagoak ere bai) eta guztion eran-

tzunkizuna da pertsona haui eguneroko bizitza erraztea: kalean galduta topatzen ditugunean, erosketak ordaintzeko orduan nahastuta ikusten ditugunean, kotxerik datorren edo ez begiratu gabe kalea gurutzatzen dutenean, noizbait tokiz kanpoko zerbait esaten dutenean, behin eta berriz gauza bera errepikatzen ditugunean, emandako azalpenak lehenengoan ulertzen ez dituztenean, etab. Ez al da egia horrelakoak ikusita beste aldera begiratzeko joera daukagula?

Alzhemirren munduko egunarekin batera guztion konprometuzua eskatunahi dugu; Alzhemir gaixotasuna dutenak eta

bere senide zaintzaileak aintzatzat hartzeko konprometuzua. Bai, gaixo hauek zaintzen dituztenak ere gaitz honen beste kalte nagusiak dira. Askotan bakar-dadean bizi behar dute horrelako pertsona bat zaintzearen prozesu luze eta latza. Jasotzen duten zama fisiko eta emozionala gogorra da oso eta bakardadea, nekea, tristura, kezka, kulpak, lotsa, inportentzia eta haserre bezalako sentimenduak pil-pilean egotea arrunta da oso. Zein gogorra behar du izan maitea dugun senitartekoaren gaixotasuna onartzea?, begibistan ikusten dugun bere izaera ez ezagutzea?, 24 orduak berarekin egonda ere ba-

karririk sentitzea?, norbere banakako beharrak alde batera utzi behar izatea zaintza lanetan jarduteko? Eta «Zu nor zara?» entzun behar izatea? agertzen dituzten portaera nahasmenei aurre egitea? etengabekoa eta geldiezina den narriadura ikustea? Eta abar luze bat...

Horregatik, guztion laguntza da beharrezkoa. Gaixoei gure babesa, goxotasuna, alaitasuna eta maitakorra den bizkarreko zaplada bat behar dute aurrera egiteko. Zaintzaileek berriz, bere egoeraren ulertzea, beraieganako interesa, beraiek zenbait mementotan ordezkatzeko eskaintza eta bere esperientzia be-

teekin elkartrukatzea eskatzen digute.

Saiatu gaitezen ba guztion artean gure inguruan ditugun kalteuei eskua luzatzen. Horrela, gaixoei prozesu gozoago bat eskainiko diegu eta zaintzaileei bakardadea, nekea eta tristura bezalako sentimenduak alde batera utzi eta gogobetetasuna, ikas-kuntza, elkartasuna, norberarekin diren ezaugarri positiboak oharrekoak eta hauek identifikatzea eta maitasuna eman eta jasotzeko daukaten ahalmenaz jabetzea bezalako efektu positiboekin gelditzeko aukera emango diegu. Guztion artean lortu dezakegu.

## Gustura egin diote ongietorria euriari asteroko azokan

**Azoka** » Aipatzekoa izan ziren Tolosako Babarrunen eskaintza zabala, baita porru eta azenarioena ere.

**PABLO ALBERDI**

Atzoko euriak oso eragin positiboa erakarriko du Tolosako azokara. Askok espero zuten, eta azkenean etorri zaigu. Barazkientzako aldaketa suposatzen du, udazkenari begira. Onddo eta perretxikoen-tzako egundoko bultzada, baratzerako landareentzako behar beharrezko uda eta hezetan puntua,

eta apaingarriko landareentzako, esperotako garai aldaketa.

Aipatzekoa atzo Tolosako babarru berriaren aukera ugaria, babarrun zuria ere salgai, oraindik lekatan, bertako onddo eta perretxiko bakar batzuk postu bat baino gehiagotan, egundoko taminako porruak eta azenarioak barazki postuetan, eta eskaintza zabala Berdura plazako apaingarri landareen postuetan.

Datorren asterako kaso egin behar harko diegu perretxikoei ea gehiagotu egin diren, eta barazki zerrendari berritasunik eskaintzen duen edo ez. Eguraldiak behintzat mesede egin du.

### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk.	Gares.	Erremolatxa	1,50	2,00	
<b>Landareak</b>		Tipula	0,80	1,00	
Azalea	7,00	10,00	Azenarioa	1,20	5,00
Erromeroa	4,00	6,00	Baratxuri freskoa	1,50	-
Zirklamena	5,50	-	Porrua	1,00	4,00
Zainzuria	2,80	-	<b>Barazkiak (kiloa)</b>		
Salbia	1,00	1,20	Babarrun zuria	8,00	-
Dipladeria	10,50	-	Tomatea	2,50	3,00
			Porruak	1,00	4,00
			lbarako piparra	4,00	6,00
			Tolosako babarruna	10,00	12,00
			Bainak	3,00	-
			Arrautzak	1,00	1,50

### » BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak			
Onddo	14,00	30,00	
Gibelurdina	25,00	-	
Ziza horia	20,00	-	

Fruta			
Konferentzia udarea	1,00	-	
Arana	2,00	-	
Urra	2,00	3,00	
Pikua	3,00	-	
Intxaurra	2,50	4,00	
Kanela udarea	1,00	-	

Barazkiak (sorta)			
Ziazerba	1,00	-	

Perretxikoak			
Sagarra	2,00	3,00	
Intxaurra	4,00	6,00	
<b>Barazkiak (Kilo)</b>			
Kalabaza	1,60	3,04	
Baratxuri	1,60	6,00	
Azenarioa	2,00	2,50	
Dilistak	2,40	-	
Txitxirioak	2,40	-	
Arroza	1,90	2,00	

### » PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Perretxikoak			
Sagarra	2,00	3,00	
Intxaurra	4,00	6,00	

Barazkiak (Kilo)			
Kalabaza	1,60	3,04	
Baratxuri	1,60	6,00	
Azenarioa	2,00	2,50	
Dilistak	2,40	-	
Txitxirioak	2,40	-	
Arroza	1,90	2,00	

## G Gutunak

### Gorostidiren itxierari ez! Lanpostu guztien mantentzea!

Tolosako Gorostidi enpresako langileek aldi baterako langileen kaleratzea, ERE temporal, soldatan ezordainketa eta enpresaren itxiera mehatxua sufritu behar izan dituzte. Nola ez, enpresak esaten du ez duela dirurik, baina azken urteetan irabaziak izan zituztenean ez ziren hauek langileen artean banatzeaz gogoratu. Enpresak «arazoko» dituenen bakarrik gogoratzen dira langileetaz, hau da, soldata jaitsi behar direnean.

Enpresa, fabrika eta industrien itxiera handitzen ari da Euskal Herri osoan. Gertaerak errealtate gogorra erakusten ari dira eta Tolosaldea ere ez da berataz libratzen ari. Gorostidiz gain, enpresa gehiago daude eskualdean non langileak erasotzen ari diren: Obeki, SAM, Voith, Emusi, Musko... Mundu osoan ematen dabilen egoera hau agerian uzten ari da kapitalismoa ez dela gai sistema bezala paper aurrekoi bat jokatzeko gizararte, eta oraindik eta gutxiago lanpostuak mantentzeko edo sortzeko eta gizararte osoarentzat bizi duin bat bertatzeko. Arriskuan jartzen ari da Tolosaldeko ehundaka familieren etorkizuna eta aldi berean, eskentoki bat sortzen ari da non langabeen kopurua, batez ere gazteriarren artean, hamarkadetatik gogortzen ez den zifretara iristen dela.

Euskal Herria Sozialistak babes osoa eman nahi die Gorostidiko langileei eta baita EREekin edo enpresa itxieraren arriskuekin dauden langileei ere. Kasu bakoitzean, enpresa bideragarritasun arazoak dituela argudiatuz kaleratze edo enpresa itxieraz baliatzen bada, liburu kontuen irekiera eskatu behar da. Enpresak esaten duena egia den kasuan, beharrezkoa da administrazioei langileen kontrolpeko enpresaren nazionalizazioa eskatzea.

Gutxiengo baten onerako bankuak salbatzeko bazeukaten diru publikoa, lanpostuak salbatzeko erabili behar da. Hau da alternatiba bakarra enpresa itxierari aurre egiteko.

Tolosaldeko langileek ezin diegu uko egin iraganean hainbeste esfortzuekin eskuratutako konkistei. Noski, patronalak eta enpresariak beren irabazi milioiunak mantentzearen ahal dituzten neurri guztiak ezartzen jarraituko dute eta fabrika bakoitzean langileak engaitatzen, desmoralizatzen eta zatitzen saiaturiko dira. Dudarik gabe, edozein borroketan, lankideen batasuna, batzarrak eta eztabaida demokratikoa langileen garai-penerako gakoa dira, baina funtsezkoa da borroka elkartzeko eta orokortzea ere.

Garbi eduki behar da zein diren Gorostidiko langileen aliatu nagusiak: gainontzeko langile klasea. Gorostidiko langileekin elkartasuna sendotu dezakeen aukeretako bat arazoekin ere dauden enpresetako langileei borroka plan bateratu bat proposatzea da. Beharrezkoa da Gorostidiko borroka orain EREekin edo itxiera mehatxuekin dauden enpresekin uztartzea. Batasuna da Tolosaldeko langile eta beren familien aurka antolatzen ari diren eraso guztiak atzera botatzeko modu onena. Eginkizun honetan eskualdeko sindituek, nahikoa indar eta baliabide baitituzte mobilizazio kanpaina erabateko eta bateratu antolatzeko, funtsezko papera jokatu behar dute.

Euren sistemaren krisia langileok ordaintzea nahi dute enpresariak. Helburua ez da sistema erreformatzea izan behar, baizik eta berrituzte borrokatzea. Gizararte bat non aberastasuna behar sozialak asetzeko erabiliko den eta ez gutxi batzuren onerako. Gure alternatiba langileen kontrolpeko ekoizteko baliabideen nazionalizazioa eta ekonomia planifikazio demokratikoa dira, hau da, Sozialismoa.

EREei ez! Kaleratzei ez! Beharrezkoa da borroka guztiak elkartzeko! Krisian dauden enpresen nazionalizazioa langileen kontrolpean! Euskal Herria Sozialista! Ibon Artola. 'Euskal Herria Sozialista' aldizkariko kidea.

## Iragarki laburrak

### » ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Villabona eta Iruran etxebizitza alokatzen da. Bata 600 euroan, eta bestea 650 euroan. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.  
■ **Kafetegi-txokolategia.** Tolosan, erdigunean, martxan dagoen kafetegi-txokolategia alokatzen da. Arrazoi: jubilazioa. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

### » LANA

■ **Lan bila.** Neska euskalduna eskaintzen da lanerako. Esperientzia zerbizari gisa, nahiz beste hainbat lanetan. Autoarekin, mugitzeko arazorik gabe, eskualdean. Deitu 679 63 13 53 telefono zenbakira.  
■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interesatuek deitu 665 72 04 26 telefonora.

### » SALGAI

■ **Etxebizitza.** Alegian, San Juan auzoan etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldaria eta egongelarekin. Prezioa: 156.000 euro. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.  
■ **Etxebizitza.** Alegian, Larraitz auzoan, etxebizitza berritua. Sukalde ederra, bi logela, egongela eta bi bainugelekin. Prezioa: 174.000 euro. Telefonoa: 669 82 70 96.  
■ **Etxebizitza.** Tolosako Gorosabel kalean, bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bata, bi logelakoa, 180.000 euro. Bestea, berriz, 156.000 euro. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

# GAILUR ARTEAN

**Villabona** » Unai Zendoia bilabonatarra, Arkaitz Lasa andoaindarra eta Oskar Porrak donostiara uda hotetan Pakistanen izan dira Gasherbrum I eta II igotzeko asmoz.

IMANOL GARCIA

Lehenengo zortzimilakoak egitera joan ziren uda honetan Unai Zendoia bilabonatarra, Arkaitz Lasa andoaindarra eta Oskar Porrak donostiara uda hotetan Pakistanen izan dira Gasherbrum I eta II igotzeko asmoz. «Biek oinarriko kanpamendua eta lehenengo kanpamendua berdin dituzte», azaltzen du Lasak. «Aurretik zortzimilakoetan eskarmenturik ez genuenez, ikusi genuen aukera onena zela bainaena bi mendiartez hartu genuen, ez bakenekien nola joango zena».



joateko zeharkatu behar den glaziara usatu zutena baino luzeago zen. «Glaziarra sei adiz pasatu genuen, hiru gora eta hiru behera», dio Porrak. «Hasierako kanpamendua gora eta behera gehiago ibiltzen zen, giroa moldatuzeko hobe baita. Baina azkenean gora igo eta denbora gehiago geroan genuen bertan. Glaziarra behin igoz gero lau-bost egun pasatzen genuen, eta gero beherakoa».

Oso gustura dute espezialistekin. «Sekulako esperientzia izan da», azaldu du Zendoiak. «Hiruak

**Porrak tontorra egin zuen Glean, Zendoia 7.600 metrora iritsi zen eta Lasa 7.800era**

**Espezialista planifikatu arren, asko aldatu daiteke aurreikusitakoa bertara joaterakoan**

ondo ibili gara. Giroa moldatzen ere ondo ibili gara eta hiruk batera ibiltzeko modu gara. Azkenean egunean hiruk salatu ginen tontorrera igotzen. Beste espezialistekin, belduta zena, kasu guztiak nuen bat gaitatu zela, beste alburan gaitzi... eta azkenean bakarra joan zen tontorrera».

**Gailurera bidean** 01:30ak ziren Gleko hirugarren kanpamendutik tontorrera atera zirenean, 20 lagun inguru batera joan ziren, espezializazio ezberdinetakoak, tartean 14 zortzimilakoak egiteko zorian dagoen emakume lorearra. Porrak hasieran atzetik joan zen eta gero bi lagunak harapatu zituen. «Ez nintzen ia konturatu bestek ez zutela aurrera egingen. Memento batean Lasa ikusi nuen beheerak joaten». Hamabi orduko igotzea izan zen berarentzat eta hamabost minutu inguru izan zen tontorrera.

Zendoiak gogoratzen duenez, egun horretan oso nekaturik zegoen. «Horrela harapatu zidan. Aurreko eguna gogorra izan zen. Kanpin dendaik presaka eta gize ateratzeagatik ur gutxi eraman nuen. Egari askorekin pasatu nuen egun hori eta ukituta iritsi nintzen».

Bere akletik, behatzak ez zituelako sentitzen hartu zuen beharrik bidea Lasak. «Behatzen hotza nabaritzen nuen, azkenean sentibilitatea galtuta nuen, ia ez nituen sentitzen eta azkenean erabaki nuen behar hartzea».

Tontorra ez bazuten zapaldu ere, altuera horietan ondo ibili zirela badalite. «Bete baterako ikusi dugu mendik horiek igotzea badagela. Lehen ikusten genituen zortzimilakoak eta ezinezkoak iruditzen zitzaizkigun, baina orain

**Esperientzia ederra** Guztira 38 egun egon ziren oinarriko kanpamenduan. Aurreneko hilabetean hiru egun on eta hiru egun txar izan zituzten. «Burrutia egiten zuten eta gero zain egiten behar», azaldu dute. Beraz, ez zegoen mendizaleek nahik zuten bezala igotzea egiteko. «Kontua da Glean elurra pilatu egiten zela. Glean haitza egiten zuzenean, nahiz eta zailago izan teknikioki, egotzeraren aldeko beheto zegoen», zehazten du Lasak.

Espezialistaren planifikazioa aurretik egin arren, bertara joaterakoan asko aldatu daiteke aurreikusitakoa. Oinarriko kanpamendutik lehenengo kanpamendura

Goleko argazkian, Porrak, Zendoia eta Lasa, oinarriko kanpamenduan; behekoan, Glean, bigarren kanpamendutik hirugarren kanpamendura joateko bidean. 1/172A


ikusten dugu igotzea badagobela», azaltzen du Zendoiak. «Pena hartzen dugu tontorra ez zapaltzeko», dio Lasak, «baina espezialistaren ikuspegi orokorrago bat ere badu. Kontua ez dela tontorra egitea bakarrik. Ez dela isatu behar tontorra egitekoekin, gainera pasatu zena pasatu ondoren».



Mendi ikusgarriak dira Gasherbrum I (ezkerrean) eta Gasherbrum II (eskuinean). 1/172A

Lasak alpinistiko pasadiaz Alcamelo mendizale boronkin zertifikatua da. Gasherbrumen egiteko bainaena espezializazio batuzten artean ezkarbanatuta zuten. Horietako batuzten zegoen Alcamelo mendizalea. «Tontorra egin behar zuelako isuratuta zegoen», diote. Glean gertatu zen. «Egun batean abiatu zen tontorrera eta gero ez zen jaitsi. Hor benetan ikusten dugu pika bat pasatzen bazara bai indarrez, bai ordutegiz, mendiak ez duela barkatzen», dio Zendoiak. «Mendizale horrek arratsaldeko zortzietan oraindik aurrera egin zuen eta ordurako hura iluna dago».

Mendizalearen gorputzik ez zuten agurtu. Hiru egun egunean frontal bat azaldu zen, 7.800 metrora, baina erreskatatzea egitea oso zaila zegoen. «Eguradi txarra sartu zen eta azkenean ezin izan zen asko egite», gogoratzen dute. Egun horretan gertatutakoak eragin izan zuen hiru mendizaleengan.



**Pitzaduren gainetik saltoka** Hainere, arriku handiena glaziaren pasatu zutela azalduen dute. «Tarte hori luzea eta arriakutsua zen», dio Lasak. «Eguradi beroa egiten zuten heinean, glaziarraren

Oskar Porrak Glean tontorrera eta Unai Zendoia Gleko hirugarren kanpamendura joateko bidean. 1/172A

**«Pika bat pasatzen bazara bai indarrez, bai ordutegiz, mendiak ez du barkatzen», diote**

**Fisikoki ez ezik, psikologikoki ere prestatuta egon behar da zortzimilakoetara joateko**

egerra ere aldatzen zihotan eta pitzadurak gero eta handiagoak ziren. Sakon ibili ginen eta pitzadura batean motxila kendu behar izan genuen gainetik, bestela ezinezko zen siltu egitea. Alburan sekulako arriakutsu dago, baina gero ezbeharra gertatu daiteke lehenengo kanpamendurako bidean. Erizainarekin joaten zara, pitzadur

ra batzuk erdi tapatuta egoten ziren... Broma gutxi horrelakoetan». Fisikoki ez ezik, psikologikoki ere prestatuta egon behar dago zortzimilako batera joaterakoan. «Hemenetik sekulako entrenamendua eginda josten zara, egonero bitarteketan, korrikari, mendian...», diote. «Baina hainbat hiltzetan prestatzen egon eta gero, hiru ordukoan eguradi txarra egiten badu, agian aste bate oinarriko kanpamenduan egon behar dugu egokituta. Eta horretaz ez zaudak ohituta. Justu mendian ibili nahi

duzun tokian, gdi egotea eskotan oso gogorra egiten da. Psikologikoki prestatuta egon behar zara». Mugan artzen dira mendizaleak horrelako mendietan. «Sentisazioa da beti zaudela nekaturta, nahiz eta giroa moldatuta egon», dio Porrak. «Ezin zara korrikari joan. Pitzakatsa josten zara, kamargakidon bezalako».

Temperaturari dagikinez, hotz eta bero handien arteko kontrastea nabarmen dute eta batez ere altuera handian zaudela. «Kanpin dendaik ateratzen ziren goizean goiz eta oso hotza egiten zuten», gogoratzen dute. «Gero eguzkia ateratzen zenean pitzakatsa berotzen egiten hasten zen eta gero bero asko egiten zuen». Hainere, lainoren bat eguzkiaren parean jartzen bazen berri ere sekulako hotza izaten zen. «Gorputzarentzat zaila zen, hotz handirik bero handira pasatzen zirela», diote.

Hiru mendizaleek ez dute baztertzen berriro ere zortzimilako bat egiten josten, baina, etorri berria, oraindik ez dute ezer zehaztuta. Denbora eta diru asko behar da horrelako espezialistak egiteko. Gasherbrumen espezializazio finantzakoa kanpatek atara zizuten eta zenbait laguntzaile ere izan dituzte. Club Vasco de Camping, Itxape zenetik eta sukaldariek, Donostiala Udala eta Andoaingo Kirolo Patronatua. Webgunea ere martxan jarri zuten: [www.gasherbrum2000.com](http://www.gasherbrum2000.com). Oinarriko zortzimilako egiteko asmoz dabiltza. Bestek beste: Villabonako Aizkardimendi elkarteak azarotik egiten duen Mendi Astean izango dira.

**maizpide 09/10 kurtsoa**

**Prestatu kanpamendua, bukatu planifikazioa eta zortzimilakoetara joateko asmoa.**

**Berretsi gaitu behar duzunak. Familia, laguntzaileak, egiteko asmoa.**

**C-1 maizpidearen aurkezpena eta maizpidearen zurrerak.**

**Lerendaketa gai maizpidearen aurkezpena.**

# Behar-Zanaren egoitza berriak ireki ditu jada, ofizialki bere ateak

**Villabona** » Elkartek lokala aldatu du eta atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia; gaur ere jarraituko dute ospakizunekin.

## ERREDAKZIOA

Behar-Zana elkartearen egoitza berriak atzo zabaldu zituen ofizialki ateak. Metro batzuk besterik ez da mugitu «etxea», baina aldaketa handia eta nabarmena izan da. Hau, Salbadorako eremuan duela gutxi eraiki ziren etxeen azpian kokatuta dago.

Ekitaldi ofiziala iluntzean hasi bazen ere, goizean ere izan zen zer ikusirik. Pilotarekin duen lotura ikusita, ezinzen falta kirol honekin lotutako ekintzaren bat. Hala, 11:00etan, elkartearen izen bera daraman pilotalekuan, hiru pilota partida jokatu ziren. Iluntzean kalejira eginaz, txarangak alaituta, festa giroa herri guztitik zabaltzen aritu ziren Behar-Zanakoak. Ondoren, bazkide zaharrenetako batzuek zinta moztu zuten eta egoitza berria estreinatuzko aukera izan zuten. Atzo ez ezik, gaur ere irekiera festarekin jarraituko dute erremonte partidekin, eta bazkariarekin.

Elkarteko bazkide gehienek atzo ikusi zuten lehendabiziko aldiz egoitza berria. Herenegun itxi zuten zaharra eta hango materiala berrira pasa dute. Oraingo honetan 130-140 lagunentzako toki dago.



Goizean pilota partidak izan ziren Behar-Zana pilotalekuan, eta arratsaldean kalejira, txarangarekin. E. EZBIZA

## Laburrak

### Goizetarako, aerobik ikastaro antolatuta nahi dute

**VILLABONA** » Villabonako Olaederra kiroldegia aerobik ikastaro bat antolatuta nahi du, goizetan. Asteazken eta ostiralean. Informazio gehiagorako Villabonako Olaederra kiroldegira jo dezakete interesatuek, edota 943 69 43 22 telefono zenbakira deituta. Hilaren 24ra arte egongo da horretarako epea zabalik.

### Montesku auzokoan bilera, etzi, Berpizturen baitan

**TOLOSA** » Monteskuoko Diagnostikoaren eta Ekintza Planaren lehen zirriborroa aurkeztuko dute etzi. Ekitaldia udaletxeko batzar aretuan izango da, 19:30ean. 2008ko irailean hasi ziren Bepiztu egitasmoarekin, auzotarrek somatzen dituzten hutsuneak agertzeko. Be-daio, Aldaba eta Urkizu auzoekin egin duten bezala, orain Monteskueri iritsi zaio txanda.

### Hiru film ezberdin ikusteko aukera gaur, Leidorren

**TOLOSA** » Gaur Leidorren hiru film ezberdin ikusteko aukera izango da. Lehendabiziko saioan, 17:00etakoan *Cher Ami* emango dute, euskaraz gainera. 19:30etakoan, Steve Jacobs zuzendariaren *Desgracia*. David Lurie (John Malkovich) irakaslearen bizitza kontatzen da bertan. Ondoren, 22:00etakoan, Gorka Otxoa protagonista den filma, *Pagafantas*. Bihar bezir, hau da, ikuslearen egunean *Desgracia* filma proiektutako dute, 20:30ean.



## Garagardoa bakarrik ez, kirola ere bai

**TOLOSA** » Velca-Oriako taldeak antolatuta, Bizikleta Eguna ospatu zuten atzo Tolosan. Txirrindularitza eskolako ikasleek hartu zuten parte bertan. Hauek, zirkuitu txiki baten barruan zigen-sagan ibilbidea osatu behar izan zuten. Ekitaldi hau Garagardo Azokaren baitan izan zen, eta garai berean hasi ziren kaineroak astintzen Zerkausan. 18:00etan ireki baitzen Garagardo Azoka bera ere. ESTI EZEIZA



## Merkatarien eskutik, antzerki musikatua

**TOLOSA** » Tolosako merkatariek ekimen berri bat jarri dute martxan Tolosako merkataritza sustatzeko asmoz. Egitasmo honi esker, atzo arratsaldean haurrentzako antzerki musikat bat izan zen Triangulon. Gaztetxo nahiz guraso ugari hurbildu ziren bertara. Haurrak dantzari, bizikletaren atzetik... jarri zituztelarik. Hurrengo larunbatean berriz, zurezko jolas tresnak izango dira San Frantzisko ibiltokian. E. EZBIZA

**Villabona** » Mugikortasun Astearen baitan bigarren eskuko azoka egin zen atzo; «esperotakoa baino gehiago» saldu dute.

**ERREDAKZIOA**

Hiri eta herri barnean ibiltzeko garrabiode eroso, azkarra eta merkea da bizikleta. Gainera ez du inolako kutsadurarik sortzen eta erabiltzen dutenentzat, osasungarria da. Atzo goizean, ezaugarri guzti hauetaz ohartuta, jende ugari hurbildu zen Villabonako Berdura plazara. Bertan, hirugarren aldiz, bigarren eskuko azoka egin baitzen. 10:00etan zabaldu zituen atekak, eta eguerdira arte egon zen irekia.

Egun hauetan, Mugikortasun Astea ospatzen ari dira eskualdeko hainbat herritan, tartean, Villabonan. Hori dela eta, antolatutako ekitaldien artean azokaren txanda izan zen atzo. Aurtengoa hirugarrena izan da, eta aurreko urteetan baino material gutxiago bildu bada ere, gustura agertu dira antolatzaileak. Beraiek azaldutakoaren arabera, jende ugari hurbildu zen atzo eguerdian gauzak erostera, «espero baino gehiago». Bizikletak, trizikloak, patinak, kaskoak, eskularrak, mailotak... topa zitezkeen bertan. Denak ere egoera oso onean. Bertako arduradunen esanetan, ireki bezain pronto hasi zen hurbiltzen jendea, eta material

# la erabili gabeko bizikletak eta materiala etxera, prezio oso baxuan

onena, goizeko lehen orduetan saldu zen.

Aduna, Asteasu, Ibarra, Irura eta Zizurkilen jarri zituzten materiala biltzeko guneak. Jabeak berak jarri zituzten salneurriak ere gauzei, eta saldu ez zena, berriro itzuli zitzaizen.

**Gaur, bizikleta Martxa**

Gaur Bizikleta Martxa egingo dute Asteasu, Anoeta eta Ikaztegieta artean. Martxa honekin Tolosaldeko bidegorriak ezagutzeko aukera eskaini nahi dute eta bi ibilbide izango dira. Biak alabiak 10:00etan hasiko dira, lehena Asteasuko plazatik aterako da eta handik Zizurkilerara, Villabonara, Irurara eta Anoetara joango dira. Bigarrena, aldiz, Ikaztegieta plaza irten-go da eta handik Alegia eta Tolosa gurutzatuta Anoetara joango dira. 11:30ean hamaiketako egingo dute Anoetako plazan eta 12:00etan itzuliko dira. Bestalde, parte-hartzaile guztien artean bizikleta bat zozketatuko dute.

Aste honetan ekin diete eskualdeko herriek Mugikortasun Asteari, baina datozen egunetan ere hainbat ekitaldi izango dira. Ekitaldien baitan, ohitura bilakatu de-



Jende ugari hurbildu zen atzo goizean Berdura plazara, bertan zegoen bigarren eskuko azoka ikustera. E. EZEIZA

netako bat da bizikleta txekoarena. Txeko puntura hurbiltzen direnei erakusten diete nola jarri behar dioten olio kateari; gurpilak zultuz gero nola konpondu, nola aldatu eta abar. Horrez gain, norberak bere bizikleta eraman dezake, hau ongi al dagoen aztertzeke. Gaur ez, baina bihar izango da horretarako aukera. Anoetan, 17:00etatik 19:00etara bitartean egingo dute herriko plazan. Villabonan ere gauza bera egingo dute.



Bizikletak eta honekin lotutako materiala erosteko aukera zegoen. E. EZEIZA

# 24 orduz gelditu gabe ari dira baloiaren atzetik Olaederran, 'Billabonara' Txapelketan



16 taldek hartu dute parte Billabonara izeneko futbol txapelketan; gaur eguerdian amaituko da. E. EZEIZA

**Villabona** » Atzo eguerdian hasi ziren partidak eta gaur 12:00etan jokatu da finala; 16 talde aritu dira lehian.


**ERREDAKZIOA**

Atzo eguerditik hasita, hainbat eta hainbat futbolzale hurbildu dira azken 24 orduetan *Billabonara*. Bertan, ari baita jokatzeko, izen hori daraman futbol txapelketa. Eguerdiko hamabietan hasi ziren partidak, eta etenik gabe, zelaian jarraitzen dute jokalariek. Denera 16 talde ari dira lehian, eta horietatik bik bakarrik jokatu dute gaur, 12:00etan hasiko den finala. Beraz, atzo astirik edo aukerarik izan ez

zutenek, oraindik ere badute aukera, Olaederra kiroldegira hurbildu eta futbol partida bat ikusteko.

Txapelketan jokoan dirua baldin badago ere, ekimen honekin, antolatzaileen helburua da herri giroa sortzea. Hori dela eta, futbola festarekin uztartu dute, eta sagardoa edateko nahiz pintxoak jateko aukera ere badute Olaederrara hurbiltzen direnek.

Billabonatarrak dira txapelketako parte-hartzaile gehienak, baina hala ere, Legorreta, Andoain eta Lasarte bezalako herrietatik ere etorri da jendea jokatzera eta animatzera. Beraz, 24 orduren ostean, gaur eguerdian erabakiko da zein taldek eramango dituen 900 euroak poltsikora, eta zeinek 450ak.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Zinema

■ **Tolosa.** *Desgracia* filma Leidor aretoan gaur 22:30ean, igandean 19:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean. *Pagafantas* filma berriz gaur 22:00etan. *Cher ami* haurrentzako filma gaur 17:00etan.

### Deialdiak

■ **Bedaio.** Irailaren 27an II. Raid Lasterketa antolatuta dute Bedaioan, 25 km-ko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartean ([www.bedaio.com](http://www.bedaio.com)).  
■ **Izaskun.** Izaskun izena dutenen festa Izaskunen: 12:00etan toka, jarraian meza, bazkaria Izaskun jabetxean eta musika Iñigo Perurenarekin.  
■ **Tolosa.** X. Garagardo Festa Zerkausian 18:00etatik aurrera, kirol taldeek eta Udalak antolatuta. Dastaketa eta kultur ekitaldiak izango dira.  
■ **Tolosa.** *Zoriontsu izan: bizitzan konfiaz, onartuz eta barre eginez* jardunaldiak Kultur Etxean hilaren 21, 22 eta 23an.  
■ **Urkizu.** Irailaren 26an Alurtxiki elkarteak auzo afaria antolatuta du. Izen-ematea, irailaren 18ra arte, 652 709680 telefono zenbakian.

### Musika

■ **Tolosa.** Cowtown (Leeds) eta The bitter teas (chicago) taldeen emanaldia Bonberenean 20:00etan.

### Kirola

■ **Zizurkil.** III. Slaloma tren geltokiaren 11:30ean. 22 parte-hartzaile.

### Erakusketak

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur


■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.  
**Bihar**  
■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943651040.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Azken astean sartu da Hitza Argazki Lehiaketa; gero eta egun gutxiago geratzen dira parte hartu ahal izateko; Maria Doloresek, Eneritzek eta Aloñak ere halaxe egin dute

# Etxetik eta kanpotik

**AMASA** ● Etxean bertan ere topa daitezke irudi ederrak. Hona hemen Maria Doloresek lortutakoa: «Oporretara ez naiz inor joan, hemen inguruan gelditu naiz eta hemen bidaltzen dituzet argazki lehiaketarako, Armasan, Garmendi baseritik ateratako argazki hau, ortzadar eta guzti». MARIA DOLORES ARRIETA



**PIRINIOAK** ● «Uda honetan Pirineoetan izan gara eta paraje ederrak ezagutu ditugu. Besteak beste 1875 metroan aurkitzen den laku eder hau, Ibon de Acherito (Selva de Oza, Echo bailaran). Igoerako nekeak laister ahaztu zitzaizkigun putzu zoragarri hau ikustean eta bertan bañu eder bat hartuz pasa genuen arratsaldea». ENERITZ GARMENDIA



**VIETNAM** ● «Argazki hau Vietnam iparraldekoa da. Alderdi hau benetan menditsua da, arrozalez betea. Larunbat goizetan Mong Flower minoriak egiten duten merkatu koloretsu hau ikustera joan ginen, astean behin elkartzen bait dira berain produktua trukatzeko. Kolorez beteriko soineko tradizionalak eraman ohi dituzte soinean, beren identitatea aldarrikatu nahian». ALOÑALA-RRARTE

## A Agurrak



### Zorionak

**Nora Odriozola Artetxe.** Biharko partez zorionak zure lehen urtebetetzeari aitaxok, aitona eta osaba-izeben partetik.